

TEATRO

Una controversia formal e ideológica

ESTE ES UN PAÍS LIBRE Y SI NO TE GUSTA VETE A COREA DEL NORTE

Director Iñigo Guardamino.

Actores Rodrigo Sáenz de Heredia, Natalia Díaz, María Besant.

Carlos GIL

Hay títulos que provocan, que llaman la atención. Estamos ante uno de esos casos y lo curioso es que se corresponde con su contenido. No es una historia lineal, sino que se estructura con micro obras, pinceladas que van configurando una idea del mundo y su contraria, un vaciado de un molde social que se rellena con materiales que no alcanzan a consolidarse como alternativa pero que ayudan a comprender la paradoja de quejarse por unas cuestiones menores cuando la otra posibilidad se nos muestra como una ausencia de utopía, una acumulación de cortapisas para sentir una noción de la libertad.

Texto alambicado, que va de apuntes paródicos a un esperpento latente. Parte de situaciones cercanas a las que les da una pátina de imaginativas incidencias en su estructura o en su propia historia, que van acumulando sensaciones a base de apuntes incompletos. Todo sucede en un espacio escénico impresionante, significativo, que produce una cascada de sensaciones y acaba convirtiéndose en un protagonista, pese a que la dirección no acaba de aprovechar las posibilidades que le proponen esas decenas de chaquetas colgadas. El trío actoral defiende de manera acertada sus cambios de papel, afrontan de manera eficaz las exigencias interpretativas, lo que le confiere a la obra unidad, una visión del mundo que se instala en la controversia.

Erein eta Igela argitaletxeen eskutik, euskaraz irakurgai dago errumaniar literaturako idazle ezagunenetarikoaren autobiografia nobelatua.

Koro Navarrok itzultitako «Huliganaren itzulera»-n, Norman Maneak bizi izan zuen erbestealdia eta aberrirako itzulera kontatzen ditu.

Norman Manearen aberrirako itzulera, euskarara ekarria

Amalur ARTOLA | DONOSTIA

Errumaniako ipar-ekialdeko Bukovina estatuan jaio zen Norman Manea, 1936an. Judua zen Manearen familia eta Bigarren Mundu Gerran, gerora Errumaniako idazle ezagunenetakoa izango zen autoreak bost urte besterik ez zituela, Transnistriara deportatu zuten familia osoa. Ceaucescuren garaian kontzentrazio-esparruak ere ezagutu zituen eta, berrogeita hamar urte zituela, Errumania utzi eta erbestearan aldeko hautua egin zuen. Berlinera joan zen lehenik, eta AEBetara ostean.

«Ederki kostata barkatu dio Errumaniak deserritzea: makina bat bider idazlea salatu ondoren errumaniar betea, behar bezain abertzalea, ez izateaz eta abarrez, azken urteotan herriak bakeak egin ditu bere idazle nagusiarekin», ekarri du gogora Koro Navarro itzultzaileak «Huliganaren itzulera» liburuaren hitzurrean. Argitalpena Erein eta Igela argitaletxeen elkarlanetik sorturiko Literatura Unibertsala bildumaren barruan dago eta Navarrok berak ekarri du euskarara.

«Huliganaren itzulera» Manearen autobiografia nobelatua dela azaldu zuen Ereineko editore Iñaki Aldekoak. Idazle errumaniarra 60ko hamarkadan hasi zen idazten eta, bere lanetan, batez ere Holokaustoaz, Errumania komunistako eguneroko bizitzaz eta erbesteaz mintzatu zen. Aldekoak nabarmendu zenez, bere autobiografiaren isplu den eleberrri honetan Maneak hamar urteko erbestealdiaren ostean Errumaniara itzultzen deneko unea du ardatz. «Nobela hau autobiografia nobelatua baino zerbait gehiago da; azpitu-tulu gisa daraman 'Bizitza bat' hori adierazgarria da», azaldu zuen, eta gaineratu zuen lanak gogoeta filosofikotik eta bidaia fisikotik, bietatik duela. «Memoriara egindako bidaia ere bada, iraganeko mundura egindakoa. Liburuan dagoen mundu hau urruti geratzen zaigu, Balkanetatik haragoko herriak urruneko egiten zaizkigu, gure erreferente historikoetatik urrun dagoen



Koro Navarro itzultzaileak Errumaniarekiko duen miresmena ere agertu zuen prentsaurrekoan. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

170

Igela eta Erein argitaletxeen Literatura Unibertsala bildumako 170. argitalpena da «Huliganaren itzulera». Aurkezpenean, literaturako erreferentziatzko obrak euskaraz emateak duen garrantzia nabarmendu eta bidean beste bi itzulpen badirela iragarri zuten.

herria da Bukovina», ziurtatu zuen. Kontakizunean zehar irakurleak topatuko dituen hiru eremu nabarmenak ere aipatu zituen Aldekoak: batetik, «juduen mundua» eta bertan amak jokatzeko duen papera aztertzen dituela esan zuen; bigarrenik, Errumaniako «unibertso literarioa» ezagutzeko parada ere ematen duela nabarmendu zuen; eta, azkenik, «erabakiak hartu behar diren bertigoa» ere agertzen duela zehaztu zuen Aldekoak.

Miresmena

Koro Navarro itzultzaileak Errumaniarekiko sentitzen duen miresmena agertu zuen liburuaren aurkezpenean. Bertara egindako bidaiak irudiez osatutako ikus-entzunezkoa ematearekin batera, Errumaniaren historiaren gaineko zehaztapenak eta lurralde-banaketaren nondik norakoak argitu zituen, Manearen liburuari testuingurua eraikitze aldera. Besteren artean, autorea jaio zen eskualde errumaniarreko hiriburua zena, Cernauti, egun Txernivsti deitzen dela eta Ukrainan dagoela

zehaztu zuen, baita hiri hori XX. mendean zehar sei estatu ezberdinen barnean egona dela ere. Itzultzailearen hitzetan, hori Maneak bizi izan zuen garaiko giro nahasiaren adierazle da.

Obraren gainean, esan zuen irakurtzeko zein itzultzeko «luzea eta zaila» dela eleberria, baina «askotan gertatzen da irakurtzeko zaila izatea, eta behin kontakizunean sartuta oso polita dela». Bere iritziz, hala gertatzen da Manearen kontakizunean. Hala, eleberria hiru atal nagusitan banatzen dela esan zuen eta irakurleari gehien interesatuko zaiona bigarrena da, bere iritziz: «Zoragarria da, bere txikitako historia, memoria nahiko konbentzionala kontatzen du». Lehen zatian, bere herrira bisitan joatera gonbidatzen dutenean idazleari sortzen zaizkion «zalantza eta beldurrak» dira nagusi. Bigarrenean, esan bezala, memoriari atzera egin eta haurtzaroko oroimen eta bizipenak ditu oinarri eta, azken atalean, hamar urteko erbestealdiaren ostean jaioterrira egiten duen bidaia fisikoa kontatzen du autoreak.